



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 45/2018

Likidazioa egiteko behar besteko zenbatekoa ez dutela jotzen diren zorrak.

Martxoaren 21eko 15/2017 Foru Dekretuaren bidez, eta Ogasun Publikoarentzako edo haren helburuak betetzeko batere probetxurik ez dakarten dirubilketako jardunak saihestearren, xedatu zen ezen Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduei dagozkien autolikidazio eta likidazio oraindik ordaindu gabeei dagozkien zor bildu gabeak, hiru euro baino gutxiagokoak, baliogabetu egingo zirela eta baja emango zitzaizela kontabilitatean.

Une honetan, zerga zorren likidazio kostuaren txostena ikusirik, egokitzen jo da berrogei euroan jartzea zerga zorraren zenbatekoa, likidazioa egiteko atalase izango dena, printzipioz.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1.Objeto. artikulua.

Foru Dekretu honen xedea da gutxienerako zenbateko bat ezartzea, haren petik ezingo delarik likidaziorik egin, edo, hala balegokio, baliogabetu eta kontabilitatean baja emango zaielarik egindako likidazioei, baldin haien emaitza gisa ordaindu beharreko zenbatekoa ez bada behar bestekotzat jotzen hura ordainarazteak eta borondatezko epean kobratzeak dakarren kostua berdintzeko.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru Dekretu hau zerga itunduei dagokien likidazioei aplikatuko zaie, Arabako Foru Aldundiak ezarri beharrekoak badira zergok.

3. artikulua. Zerga betebeharr nagusiarengatik likidazioa egiteko gutxienerako zenbatekoa.

1. Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako zerbitzuek ez dute egingo zergak aplikatzearen ondoriozko likidaziorik honako inguruabar hauek direnean tartean:

a) Zerga-zor nagusiaren emaitza positiboa guztira, berandutze interesak kontuan hartuta, ez izatea 40 euro baino handiago unitateko.

b) Likidazioa ekarri duten egitateak zehatzeko espedientea bidegabetzat edukitzea.

2. Aurreko paragrafo horretan xedatutakoa gorabehera, zerbitzu horiek likidazioak egin ahal izango dituzte aipatutako zenbateko hori baino txikiagoak izan arren, zergen izaerak edo haien eraginak hala gomendatzen badute.



4. artikulua. Likidazio eta autolikidazio proposamenak.

Aurreko artikuluan xedatutakoa ez da aplikatuko Arabako Foru Aldundiak zergadunei igorritako autolikidazio proposamenetan ez eta zerga errekarrien edo zerga zehapenen eremuan.

XEDAPEN IRAGANKORRA.

Foru Dekretu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko Foru Dekretua indarrean sartzean hartan ezarritako baldintzak betetzen dituzten likidazio edo zor Administrazioak egin edo likidatutakoetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Foru Dekretu hau indarrean sartzean indarririk gabe geratuko da 15/2017 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduen autolikidazio eta likidazioen ondoriozko zerga zorrak eta zehapenak baliogabetzea eta haiei kontabilitate baja ematea.

AZKEN XEDAPENA. Indarrean jartzea.

ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia

José Luis Cimiano Ruiz
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu
Saileko foru diputatua

Teresa Viguri Martínez
Ogasun zuzendaria